



**Erakunde-adierazpena, tropa frankistek
Errenteria okupatu zutela 90 urte betetzen
direnean**

2016ko uztailaren 19an, Errenteriako Udalean ordezkaritza zuten alderdi politiko guztien adostasunarekin, Udalbatzak, aho batez erabaki zuen ikerketa bat egitea gerran eta gerraostean gertatutako egitateen eta giza eskubideen zapalketen neurria zehazteko.

Horretarako, Errenteriako Udalak Aranzadi Zientzia Elkarteari "Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan Errenterian 1936-1945" ikerketa enkargatu zion. Dokumentu hori prestatzen zen bitartean, gainera, bulego bat zabaldu zen garai historiko horren inguruan ekarpenak egin nahi zituztenen testigantzak jasotzeko. Guztira, lan horretan bilduta dauden 36 testigantza jaso ziren.

Ikerketa lan horrek lagundu zigun gerran eta gerraostean gure herrian gertatutakoa dimentsionatzen.

Kolpe militarren, okupazio frankistaren eta ondorengo errepresioaren ondorioei dagokienez, honako hauek nabarmentzen dira:

- Garai hartan Errenterian bizi ziren 9.000 biztanleetatik, gudari eta

**Declaración institucional con motivo del 90.º
aniversario de la ocupación de Errenteria por
parte de las tropas franquistas**

El 19 de julio de 2016, con el acuerdo de todos los partidos políticos con representación en el Ayuntamiento de Errenteria, la Corporación decidió por unanimidad, realizar una investigación para determinar la magnitud de los hechos ocurridos durante la guerra y la posguerra, así como de las violaciones de derechos humanos en nuestro municipio.

El Ayuntamiento de Errenteria encargó a la Sociedad de Ciencias Aranzadi el estudio «Represión y violaciones de los Derechos Humanos durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo en Errenteria, 1936-1945». Durante la preparación de este documento, además, se abrió una oficina para recoger testimonios de quienes deseaban aportar información en torno a este período histórico. En total, se recogieron 36 testimonios que fueron incorporados a este trabajo.

El proceso de investigación nos ayudó a dimensionar lo sucedido en nuestro pueblo durante la guerra y la posguerra.

Entre sus resultados, en relación con las consecuencias del golpe militar, la ocupación franquista y la posterior represión, destacan los siguientes:

- De los y las 9.000 habitantes con las que contaba el municipio en la época,



milizianoen artean, guztira, 862 errenteriar joan ziren frentera, Errepublikak eta euskal herritarren eskubide guztiak defendatzera.

- 99 gudari gerran hil ziren eta judizioz kanpoko 29 fusilamendu izan ziren.
- 274 pertsona epaitu zituzten gerra-kontseilu frankistetan; 20 heriotza-zigor ezarri zituzten eta 8 gauzatu ziren.
- Guztira, 35 udal langile kargugabetu zituzten. Udaleko 22 langileri espedientea zabaltu zitzaion, eta zenbait fusilatu egin zituzten.
- Irakasleak bota zituzten frankista bihurtu zuten eskolatik; irakaskuntza nazionalkatolikoa zuen ezaugarri nagusi.
- 154 haur atzerrian errefuxiatu eta beren familiengandik bereizi zituzten, hainbat kasutan, urte luzez.
- Errenteriako biztanleen erdiak ihes egin behar izan zuen.
- Era berean, ehunka preso egon ziren baldintza prekario eta penagarrietan espetxe frankistetan eta «Langileen Batailoietan».

862 errenteriar, entre gudaris, milicianos y milicianas, fueron al frente a defender la República y las libertades vascas.

- 99 combatientes murieron durante la guerra y se produjeron 29 fusilamientos extrajudiciales.
- 274 personas fueron juzgadas en consejos de guerra franquistas; 20 fueron condenadas a muerte y 8 fueron ejecutadas.
- En total, 35 empleados municipales fueron destituidos. Se abrió expediente a 22 trabajadores del Ayuntamiento y varios fueron fusilados.
- El profesorado republicano fue expulsado de una escuela que había sido reconvertida en franquista y que se caracterizaba por una enseñanza nacionalcatólica.
- 154 niños y niñas fueron enviados al extranjero como refugiados y separados de sus familias, en varios casos durante años.
- La mitad de la población de Errenteria tuvo que huir.
- Asimismo, hubo cientos de presos en condiciones precarias y penosas en las cárceles franquistas y en los «Batallones de Trabajadores».

1936ko irailaren 13an Beorlegi koronelaren

El 13 de septiembre de 1936 las tropas del



tropek Errenteria okupatu zuten.

Egun gutxi batzuk lehenago, eta tropa frankistek aurrera egin zutela ikusita, herritar askok, beren familiekin, baita udal ordezkariak ere, herritik alde egin zuten Defentsa Batzordeak ebakutzeko agindua eman ondoren.

Udalari dagokionez, irailaren 16an egin zen Errenteriako Zirkulu Karlistak izendatutako eta Gipuzkoako Gerra Karlistako Batzordeak berretsitako Udalbatza berriaren lehen osoko bilkura egin zen. Horrela, 1931 urtean demokratikoki aukeratutako eta 1936ko otsailean berriz jarritako udalbatza, ofizialki tradizionalistek eta falangistek ordezkaturatu zen, Carmelo Recalde karlista alkate izendatuta.

Datu hauek guztiek, besteak beste, urte haietako eskubideen urraketa eta eragindako sufrimendua dimentsionatzen laguntzen dute eta Aranzadik egindako lanari esker ezagutzen ditugu, zeinak 1936 eta 1945 artean gure herrian gertatutako egitateak eta giza eskubideen zapalketak jasotzen dituen.

Ikerketak egia bilatzea zuen xede, egia beharrezkoa baita giza eskubideen zapalketen biktimak guztien justiziarako eta, ondorioz, erreparaziorako eskubidea bete dadin eskatzeko.

Justizia Administrazioa Udalaren eskumena ez bada ere, Udalak biktimen memoria, aitortza

coronel Beorlegi okuparon Errenteria.

Unos pocos días antes, y viendo el avance de las tropas franquistas, muchas vecinas y vecinos junto a sus familias y representantes municipales habían abandonado el pueblo tras la orden de evacuación dada por la Junta de Defensa.

En cuanto al propio Ayuntamiento, el 16 de septiembre se celebró la primera sesión plenaria de la nueva Corporación, ratificada por la Junta de Guerra Carlista de Gipuzkoa, nombrada por el Círculo Carlista de Errenteria. Así, la Corporación municipal democráticamente elegida en 1931 y repuesta en sus cargos en febrero de 1936 fue oficialmente sustituida por tradicionalistas y falangistas, con el nombramiento del carlista Carmelo Recalde como alcalde.

Todos estos datos contribuyen, entre otros, a dimensionar la vulneración de derechos y el sufrimiento causado en aquellos años y son conocidos gracias a la labor realizada por Aranzadi, que recoge hechos y vulneraciones de derechos ocurridas en nuestro municipio entre 1936 y 1945.

La investigación buscaba la verdad, necesaria para exigir el cumplimiento del derecho a la justicia y, en consecuencia, a la reparación de todas las víctimas de violaciones de derechos humanos.

Aunque la Administración de Justicia no es competencia municipal, el Ayuntamiento sí



eta erreparazio sozial eta sinbolikoaren arloko jarduerak garatu ditzake.

Norabide horretan, 2016ko uztailaren 19ko udalbatza hartan honakoa onartu zen aho batez:

“(…) Udal honek bereziki gogoratu nahi ditu lau udal-funtzionario, haien gorpuak oraindik ez baitira aurkitu: Félix Elgarresta Arbelaiz, José Elorza Narvaiza, Celestino Gaztelumendi Berasategui eta Miguel Irastorza Echeverría. 80 urte igaro ondoren ere beren familiek drama bera bizitzen jarraitzen dute, beren senide maiteek desagertuta jarraitzen baitute”. 90 urte geroago familien ezinegonak bere horretan darrai.

Haien omenez Udalak ekitaldi bat antolatuko zuen irailaren 13an pleno aretoan; halaber, berariazko aintzatespena egin zitzaien lau pertsona horiei aretoaren sarreran plaka bat jarrita. Ekitaldi hartan Serapio Mendarte Ugarte zinegotzia ere gogora ekarri genuen, bere gorpua oraindik ere ez baita agertu.

Horrela, Errenteriako Udalak 2012an azken korporazio errepublikanoari egindako omenaldiari jarraipena eman zitzaion.

Eta, orain, altxamendu frankista gure herrira iritsi zela 90 urte betetzen diren honetan, garrantzitsua iruditzen zaigu:

- Errenteriako Udalak Aranzadiren

puede desarrollar actuaciones en materia de memoria, reconocimiento y reparación social y simbólica de las víctimas.

En este sentido, el Pleno de la Corporación de 19 de julio de 2016 aprobó por unanimidad:

«(…) Este Ayuntamiento quiere recordar especialmente a cuatro funcionarios municipales cuyos cuerpos aún no han sido recuperados: Félix Elgarresta Arbelaiz, José Elorza Narvaiza, Celestino Gaztelumendi Berasategui y Miguel Irastorza Echeverría. Incluso después de 80 años, sus familias siguen viviendo el mismo drama, ya que sus seres queridos siguen desaparecidos». 90 años después la desazón de las familias continúa.

En su honor, el Ayuntamiento organizó un acto el 13 de septiembre de 2016 en el salón de plenos, y se colocó una placa en la entrada de dicho salón como reconocimiento a estas cuatro personas. Ese día se recordó además al concejal Serapio Mendarte Ugarte, cuyo cadáver igualmente sigue desaparecido.

De esta manera, se dio continuidad al reconocimiento que el Ayuntamiento de Errenteria realizó en 2012 a la última Corporación Republicana.

Ahora que se cumplen 90 años del levantamiento franquista y de la ocupación militar de nuestro pueblo, nos parece importante:

- Recordar los resultados del trabajo realizado



laguntzarekin egindako lanaren emaitzak gogora ekartzea eta kolpe frankistak gure udalerrian izan zuen eraginaz jabetzea. Jakitea, ezagutzea, ezinbestekoa baita gure iraganaren eta etorkizunaren jabe izateko.

- Gertatutako giza eskubideen zapalketen biktimen egia, justizia eta erraparaziorako eskubidea aitortzea eta gertatukoa ikertzen eta ezagutzen jarraitzeko konpromisoa berrestea.
- Kolpe militarren eta frankismoaren aurrean, tradizio politiko eta ideologiko desberdinetatik, legezkotasun demokratikoa, askatasunak eta euskal autogobernua defendatu zuten pertsona guztien ekarpena oroitzea eta balioan jartzea.
- Gertaera haiek eragindako eta oraindik itxi ez diren zaurien minarekin bat egitea.
- Gertatutakoa ez errepikatzeko gizarteari dagokion eskubidearekin bat egitea eta, asmo erreakzionarioak desagertu ez direla jakinda, gertatutakoa errepikatuko ez dela bermatzeko behar diren neurriak hartzeko konpromiso berrestea.

Halaber, erakunde-adierazpen honen bidez, Errenteriako udalak herritarrak deitu nahi ditu IRAILAREN 12AN, LARUNBATAREKIN, 10:45ean, Herriko Enparantzan antolatu duen

por el Ayuntamiento de Errenteria con la colaboración de Aranzadi y tomar conciencia de la influencia que tuvo el golpe franquista en nuestro municipio. Saber y conocer es imprescindible para ser dueños y dueñas de nuestro pasado y de nuestro futuro.

- Reconocer el derecho a la verdad, la justicia y la reparación de las víctimas de atropellos de derechos humanos y reafirmar el compromiso de seguir investigando y dando a conocer lo sucedido.
- Recordar y poner en valor la aportación de todas aquellas personas que, desde diferentes tradiciones políticas e ideológicas, defendieron la legalidad democrática, las libertades y el autogobierno vasco frente al golpe militar y el franquismo.
- Sumarse al dolor por las heridas que aquellos hechos causaron y que aún no han sido cerradas.
- Sumarse al derecho de la sociedad, en un momento de cuestionamiento de los valores democráticos, a no repetir lo sucedido y reafirmar el compromiso con la democracia, los derechos humanos y las libertades frente a cualquier forma de autoritarismo o intento de quebrar el orden democrático.

Asimismo, mediante esta declaración institucional, el Ayuntamiento de Errenteria convoca a la ciudadanía al acto que tendrá lugar EL SÁBADO 12 DE SEPTIEMBRE, a las



ekitaldira, zeinetan gogoan izango diren duela 90 urte bizi izandako ordena demokratikoaren suntsiketa eta horrek berarekin ekarritako eskubide urraketak eta pertsonen sufrimenduak, hori guztia gogoratu eta berriz ez gertatzeko gure udalerriaren konpromisoa berresteko.

10:45 horas, en la Herriko Plaza, en el que se recordará la quiebra del orden democrático vivido hace 90 años y las vulneraciones de derechos y sufrimientos de las personas, para reafirmar el compromiso de nuestro municipio de no repetición.